

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MANZANOSKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Gizarte etxearen, taberna-dendaren eta pilotalekuaren erabilera eta ustiapena lagatzea

1. Erakunde esleitzaila: Manzanosko Kontzejua.

– Espedientearen kodea: 2/2018.

2. Kontratuaren xedea.

– Azalpena: Manzanosko Kontzejuaren (Araba) jabetzakoa diren gizarte etxearen, taberna-dendaren eta pilotalekuaren erabilera pribatiboa lagatzea. Zehazki, xedea izango da gizarte etxearen, taberna-dendaren eta pilotalekuaren instalazioak kudeatu, zaindu eta garbitzea.

– Kontratuaren iraupena: urte 2, urtero beste bi urtez luza daitekeena, gehienez ere 4 urtera arte.

3. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era.

– Izapidetzea: arrunta.

– Prozedura: irekia.

– Esleipen irizpideak: agiriaren XIII. klausulan zehaztutakoak.

4. Lizitazio oinarria. Kanona.

– Esleipendunak, kontratuaren prezio moduan (kanona), 1.440 euro (gehi BEZa) ordaindu beharko ditu urtero. Gehiago eskainita hobe daiteke. Kontratuaren azken prezioari urtero dagokion KPIa gehituko zaio.

5. Aldaerak onartzea: ez

6. Bermeak.

– Ez da behin-behineko bermerik eskatuko.

– Behin betikoa: 600 euro.

7. Kudeaketaren baldintza bereziak.

– Baldintza agiriaren XVIII. eta XX. klausuletan zehaztutakoak.

8. Agiriak eta argibideak eskuratzea.

– Telefono honetara deitu: 607 262 865 (Javier)

– Ordutegia: 10:00-14:00ra, egun baliodun guztietan, proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

Lizitazioaren inguruabar bereziak ezagutze aldera, lizitatuzaileak kontzejuko presidentearekin harremanetan jar daitezke, betiere eskaintzak aurkeztu aurretik.

Kontratatuzailearen profilean argitaratuko dira kontratazio mahaiaren akta eta esleipena, bai eta kontratuarekin lotutako beste edozein datu eta informazio ere, SPK Lan ezarritakoarekin bat etorritz.

9. Eskaintzak aurkeztea.

– Manzanosko Kontzejuak ez duenez nahikoa baliabide material eta pertsonal, eta lizitazioaren funtsa ikusita, ez da eskatuko eskaintzak baliabide elektronikoen bidez aurkeztea.

– Eskaintzak Erriberabeitiko Udaleko bulegoetan aurkeztuko dira. Helbidea: San Martin plaza 1, 01213, Ribabellosa (Araba). Telefonoa: 945 355116; posta elektronikoa: info@erriberabeitia.eus.

– Orduetgia: 9:00etatik 14:00etara, iragarkia kontratzailearen profilean eta ALHAOn argitaratzen denetik hilabete bateko epean. Azken egun hori larunbata edo egun baliogabea bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da epea.

– Eskaintzak, epe horretan, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan ezarritako lekuetan aurkeztu ahal izango dira.

– Eskaintzak postaz bidaltzen badira, lizitatuak frogatu behar du noiz egin duen bidalketa postetxean, eta kontratazio organoari telex, fax edo telegrama bidez jakinarazi behar dio egun horretan bertan eskaintza bidali duela. Kontratuaren xedearen izenburu osoa eta lizitatuaren izena adierazi behar ditu.

– Lizitatuak eskaintzari eutsi behar dion epea: bi hilabete, aurkezpenetik.

– Aurkeztu beharreko agiriak: agiriaren XI. klausulan eskatutakoa.

10. Eskaintzak irekitzea.

– A gutunazala ireki ondoren eta, hala badagokio, dokumentazioa zuzendu ondoren, kontratazio mahaiak jendurreko ekitaldia egingo du proposamenak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo bosgarren egun naturalean (egun hori larunbata edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera arte atzeratuko da), Manzanosko Kontzejuaren bulegoetan (Sobre la Rueda kalea 16, Manzanos), 13:00etan, A gutunazalen irekieraren emaitza jakinarazteko; eta, ondoren, C gutunazala, balio judizio baten menpe dauden irizpideak dituen, ireki eta aztertuko du.

11. Iragarkien gastuak.

Kontratistaren kontura.

Manzanos, 2018ko azaroaren 5a

Lehendakaria

FRANCISCO JAVIER ARGOTE URZELAI